

FAKULTATEKO OHIKO BATZARRAREN AKTA **(2022ko apirilaren 8a)**

Bertaratutakoak eta bertaratu ez direnak **(Ikastegiaren Oinarrizko Arautegiko 22.2 artikulua)**

Dekanotza taldea

1. Del Valle Loroño, Ana Irene – Dekanoa
2. Arlucea Ruiz, Esteban – Idazkaria
3. Doblaz Pozo, Patxi – Dekanordea
4. De la Peña Varona, Alberto – Dekanordea
5. Casado del Río, Miguel Ángel – Dekanordea
6. Ayestarán Yarza, Alazne – Dekanordea

Administrazio burua

7. Asensio Espina, Riztiñe

IRI iraunkorrak

8. Davila Legeren, Andrés
9. Meso Ayerdi, Koldo
10. Lasaga Sanz, Rafael
11. Novo Arbona, Ainhoa
12. Ganzabal Learreta, María
13. Lavía Martínez, Cristina
14. Antolín Iría, Enrique (ezin etorria adierazi du)
15. Ispizua Uribarri, Marian
16. Amurrio Vélez, Mila
17. Miguel Saez de Urabain, Ainara (ez da bertaratu)
18. Pérez Da Silva, Jesús Ángel
19. Apodaka Ostaiakoetxea, Eduardo
20. Camacho Markina, Idoia (ez da bertaratu)
21. García Ureta, Irene
22. Usín Enales, Sandra
23. Blas Mendoza, Asier
24. Otero Gutiérrez, Beatriz
25. Beaskoetxea Gangoiti, José María
26. Martínez Herrero, María José (ez da bertaratu)
27. Orueta Estívariz, Gorka
28. Mendiguren Galdospín, Terese
29. Tellería Herrera, Imanol (ez da bertaratu)
30. Lazcano Brotons, Íñigo (ez da bertaratu)
31. Larrondo Ureta, Ainara

Gainerako irakasle-ikertzaileak

32. Zabalondo Loidi, Beatriz
33. Iturbe Tolosa, Andoni

AZP

34. García Vázquez, María José
35. Ocerin Beraza, Isabel
36. Kanpandegi Iturbe, Jon Ander
37. Laniella Fernández, Igor
38. Arandia Urriaga, Igone

Ikasleak

39. Rino Pardo, Celia (ez da bertaratu)
40. Figuerola Hernández, Agustina (ez da bertaratu)
41. Eriz Ávila, Lorea
42. González Cortes, Álvaro Alejandro
43. Lakuntza Bakakioa, Mikel Adur (ez da bertaratu)
44. Apaolaza López, Naroa (ez da bertaratu)
45. Eizaguirre Aramendi, Julen Lur (ez da bertaratu)
46. Martínez de Albéniz Casales, Ainara (ez da bertaratu)
47. Amuskibar Sarasua, Ekai (ez da bertaratu)

UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Batzarra bildu egin da 2022ko apirilaren 8an, ostirala, 13:00etan, bigarren deialdian eta ohiko bileran eskatutako quoruma egiaztatu ondoren, dekanoa buru delarik. Hona hemen aztergaien zerrenda:

1. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Batzarrak aztertu ondoren, onartu egin da 2022ko urtarrilaren 28ko bileraren akta.

2. Dekanoaren txostena

Dekanoak, txostenaren berri eman aurretik, aztergaien zerrendaren ordena aldatzea proposatu dio Batzarrari, Ikastegiaren Oinarrizko Arautegiko 20.2 artikulua oinarri dela. Batzarrak aldaketa hori egitea erabaki du. Horren ondoren, zenbait gairen berri eman du. Txostena hasteko, adierazi du UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak Fakultateak 2022/23 ikasturterako egin duen gradu bakoitzeko gehieneko plazen proposamena onartu duela. Gradu Amaierako Lanarekin jarraituz (GRAL), beste bi sari iragarri ditu: Berria Komunikazioa GRAL, *Berria* egunkariarekin batera deitua, eta GRAL-Kazetaritza saria, aldiz, Euskal Kazetarien Elkartearekin batera. Biak ere Fakultatearen webgunean ageri dira dagoeneko.

Zenbait kontu aipatu ditu, gradu eta graduondoko araudiei dagokienez. Alde batetik, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2022/2023 ikasturterako gradu ikasketak kudeatzeko araudian bi aldaketa garrantzitsu egin eta onartu du: bata, izena aurretik emateko epea ekainaren 16tik 29ra arte izango da, aurrematrikularako aldirik gabe; bestea, eskolen lehen astean, e-gela plataformaren bidez, eta Fakultatearen webgunean ere, ikasgai bakoitzaren ikasteko gidak emango dira.

Bestalde, Gobernu Kontseiluak hurrengo ikasturteko masterrak kudeatzeko araudia ere onartu du. Aldaketa esanguratsuenak honako hiru hauek dira: izena aurretik ematea *online* egingo da; graduiko ikasleek izena aurretik ematean, GRALekin eta gehienez gainditu beharreko bederatzikredituekin egiteko aukera izango dute; azkenik, ebaluazio probak erreklamatzeko organoen hurrenkera hauxe izango da: unibertsitatean, irakaslea bera; masterraren Batzorde Akademikoa; dekanoa; eta azkenik, errektorea. Haren ondotik, administrazioarekiko ausien jurisdikzioaren bidea dago.

Txostenarekin jarraituz, dekanook datorren urterako mugitzeko eskaeren kopuruari heltzen dio, horretarako epea amaitu baita. Kopurua aurreko ikasturtekoaren antzekoa da, igoera txiki batekin: guztira, 230 eskaera, aurreko 215en aldean.

Graduetako praktikak eta praktika dualak non egin esleitzeari buruz, une honetan kudeatzen ari dira. Beste alde batetik, maiatzaren 3, 5 eta 7an, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, hurrenez hurren, UPV/EHUren enplegu foroak egingo dira. Horiei buruzko argibideak: <https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/enplegu-foroak> Unibertsitate orientazioko azokei loturik, IAZek oraingoz ez du haietara joandakoen daturik eman, baina asko izan ziren. Horrez gain, apirilaren 2an, larunbata, ateak zabaltzeko egunean, iaz baino %7 gehiago bertaratu ziren. Bide batez, dekanook eskerrak eman nahi izan dizkie antolatzen parte hartu zuten guztiei, ez soilik datuek erakusten duten erantzunagatik, baita bisitariei eman zaien Fakultatearen irudiagatik ere.

Gure etxearen 40. urteurrenaren ospakizuna dela eta, egindako ekitaldiak berrogeita hamar inguru izan dira: aipatzeko modukoak izan dira eragin den partaidetza eta ilusioa. Adibide gisa, gertakari berrienak ditugu: martxoaren 9ko Martxa Lila antolatzea, auditoriumetik zuzenean egindako bi irratsaio, eta *Gogoetak esperientziatik* ataria. Ekainaren 14an, ikasle tituludunak graduatzeko ekitaldiarekin batera, amaitutzat joko da *Fakultatearen 40. urteurrena* izeneko ekitaldi sorta zoragarria.

Txosten honen amaiera modura, Fakultateari *beste* bi sari eman dizkiotela jakinarazi du: martxoaren 23an, Komunikazioaren Saria, *Sociedad Española de Radiodifusión* elkarteak emana, hau da, SER elkarteak; eta martxoaren 31n, Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteak Fakultateari egindako aitortza. Zalantzarik eta galderarik egon ez denez, aztergaien zerrendako hurrengo puntuari heldu zaio.

3. Arau aldaketak

Dekanoak aditzera eman du *Fakultateko graduetako prestakuntza dualeko programen arautegi osagarria* Batzarrari aurkeztuko zaiola, onar dezan. Arautegi propioa da, 2020ko apirilko UPV/EHUren arautegi orokorraren osagarria. Onartu egin da.

Ondoren, Alazne Ayestarán dekanordeari eman dio hitza eta hark Batzarrari proposatu dio GRAL egiteko eta azaltzeko arautegian 8. artikulua 2. zenbakia aldatzeko. Aldaketa horretarako, proposamena "Irakaskuntza Antolatze Dekanordetzaren bidez" gehituko da. Hori ere onartu da.

4. GRALen egutegia

Alazne Ayestarán Irakaskuntza Antolatze dekanordeak 2022/2023 ikasturterako GRALen kudeaketa egutegia aurkeztu du. Zalantzarik eta galderarik egon ez denez, baiespenez onartu da, bere horretan.

5. GRALen sailkako eskaintza

Alazne Ayestarán dekanordeak eskaintza hori jakinarazi die batzarkideei eta baiespenez onartu dute.

6. Batzordeak eta epaimahaiak

Dekanoak gonbita egin dio idazkariari puntu hau aurkez dezan. Batetik, idazkariak adierazi egin du zenbait batzorde partzialki berritu direla: Kalitate Batzordean, Marian Ispizuak José Ignacio Armentia ordeztu du; Gradu Amaierako Lanen Batzordean eta Kalitate Batzordean, Ainara Larrondok Carmen Peñafiel ordeztu du eta Izaro Gorostidik, Imanol Telleria.

Bestetik, azaldu du graduiko bost batzordeak onartu direla, Fakultateko Kalitate Arautegiko 5.2 artikuluari jarraituz. Akats bat antzeman da Soziologia Graduiko Batzordean bigarren mailako koordinatzaile ageri denaren izenean, ez baita Esti Alonso: Estibaliz de Miguel izena sartuz zuzendu da.

Batzarrak aurreko aldaketa guztiak onartu ditu.

Jarraian, idazkariak azaldu egin du irakasle-ikertzaile iraunkorren ordezkari bat aukeratu beharra dagoela Batzorde Iraunkorrerako, kide batek erretiroa hartu duelako, bai eta ikasleen bi ordezkariak ere. Legezko epean eta eran aurkeztutako bi hautagaitza bakarrak (estamentu bakoitzeko bat) aztertu eta onartu ondoren, estamentu bakoitzeko ordezkariak beren artean bozkatu dituzte hautagaitzak. *Estudiantado GKZ* hautagaitzak, Lorea Érizek eta Álvaro Gonzálezek titular gisa eta Celia Rinok eta Agustina Figuroak ordezkari gisa osatzen dutenak, bi boto eskuratu ditu; hortaz, Lorea Ériz eta Álvaro González aukeratu eta izendatu dituzte ikasleek Batzorde Iraunkorreko kide.

Irakasle eta ikertzaile iraunkorren bozketari dagokionez, Ainhoa Novo buru duen hautagaitza bakarrak hemezortzi boto lortu ditu eta, ondorioz, talde horrek aukeratu eta izendatu du Batzorde Iraunkorreko kide.

7. Irakaskuntza azpiegituraren eskaera

Puntu hau Andoni Iturbe azpiegiturako dekanordeak aurkeztu du, dekanook hala eskatuta. Dekanordeak kontzeptuen eta zenbakien azaleko aurkezpena egin du. Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzari eskatu beharreko zenbatekoa 112.792,14 €-koa da. Batzarrak eskaera onartu du.

8. Aldaketak Multimedia Komunikazioko masterrean

Dekanoak Batzarrari aurkeztu dio masterraren Batzorde Akademikoak eginiko aldaketa proposamena, sartzeko baldintzei buruzkoa. UPV/EHUko masterrak ezartzeko, aldatzeko eta kentzeko prozeduraren 14.2 artikulua betez, Fakultatearen aurretiko txostena behar da. Batzarra aldaketa proposamenaren alde agertu da.

9. Azpiegiturak erabiltzeko baimena

Batzarrak Bizkaia Aretoa erabiltzeko eskaera babestu du, EAEn bizi diren atzerritarrei buruzko inkestaren inguruko lan jardunaldi teknikoa egite aldera, 2022ko apirilaren 29an. Era berean, gune horretan *El cupo a la luz de sus negociadores y protagonistas (1841-2022)* izeneko jardunaldia 2022ko martxoaren 28an egiteko eskaeraren aurretiko babes berretsi du.

10. Irakasleen plazak

Batzarra honako bi plaza hauen eskaeren alde agertu da:

- 8. eranskina, Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak proposatuta: arduraldi osoko irakasle atxiki elebidun bat kontratatzea, AGC8L133712 plaza hutsa betetzeko, .
- 11. eranskina, Kazetaritza Sailak proposatuta: TUC8/1-336-7 plaza eraldatzea, unibertsitateko irakasle titular elebidun arduraldi osokoa izatetik, unibertsitateko katedradun elebidun arduraldi osokoa izatera.

11. Galde-eskeak

Ez dago halakorik.

Beste aztergairik izan ez denez, dekanook bilera amaitutzat jo du 13:48an eta nik, idazkariak, horren fede ematen dut, Leioan, 2022ko apirilaren 8an.

Dekanoak ontzat emana
Ana Irene Del Valle

Idazkari akademikoa
Esteban Arlucea